

HITZAURRE GISA

Jose Luis Alvarez Enparantza
«Txillardegi»

Ohiturari jarraiki, aurkez ditzagun oso laburki **Bat-24** honetan agertzen diren lanen ideia nagusiak.

Andoni Sagarna lankide ezagunak eskaini digun lanaren aztergaia garbiki agertzen da artikuluen barrena: «Euskararen erronka teknologia berrien aurrean».

«Faktore askok baldintzatzen dute» gure hizkuntzaren geroa. Eta Sagarnak «apokaliptikoa» izan nahi ez badu ere, oso kezkatuak azaltzen ditu arriskuak eta apostuak. «Aldaketak gero eta lasterrago» burutzen ari dira; eta, nahi ez badugu ere, mundu teknologiko berri horrek baldintzatu egiten gaitu, eta areago baldintzatuko gaitu ondoko urteotan. Gauza nabarmena da etorkizun zail horrek beldurtu egiten gaituela, eta atzera egiteko tentazioa ere pitz dezakeela guban. Baina ihesak ez lituzke arazoak konponduko. Aurki, dinosku Sagarnak, teknologia berri horiek baliatzeko gauza izango direnak egongo dira alderdi batean; eta baliatzen jakingo ez dutenak bestean. Eta kitto.

«Baliotzko al du euskarak teknologia berrietan sartzeko?» galdetzen du zuzenean artikulugileak.

Testuen irakurketa automatikoa, ahotsaren sintesia eta ulerketa, aurrera doaz. Eta itzulpen automatikoa ere uste izan genuen baino askoz zailagoa

bada ere, badator pixkanaka. Eta honek guztiak apostu larria egiten du Komunikazioaren alorrean; eta hizkuntzenan ere bai. Baina askoz merkeagoa da jadanik «e-mail» elektroniko delakoa, orain dela urte gutxi gaindīgaitz jotzen zen «fax» sistema baino (gastuak %95ean txikitu dira).

Ordenadore-programa batek, bestalde, 18 hilabeteko «bizia» du gaur egun, eta batez beste.

Mapa linguistikoak, beste alde batetik, Dialektologia zientifikoaren ardatza izan ondoren, ezer gutxi adierazten dute mundu moderno eta hiritartuan.

Euskara, azkenik, ez da oso interesgarria ekonomizismo gordinaren ikuspuntutik.

Honek guztiak pentsatzera eta ideia zaharkituak alde batera utzi beharrera garamatza. Sekula baino segurkiago: berriro ala hil.

Bibliografiaren zehatzak eta zabalak, azkenik, ideia horietan sakontzeko parada eskaintzen du.

Beti izan da Katalunia gu euskaldunontzat, hizkuntzaren alorrean bereziki, berrikuntza eta informazio iturri.

Hori dela-eta, bere osoan ematen dugun «P.E.C» proiektu zehatza, lagungarri izan dakieke gure ustez, plangintza lanetan ari diren euskaldun teknikariei.

Irakurgarri gertatzen da oso baita ere, eta oso kontutan hartzekoa, Euskal Herriko Unibertsitatean irakasle den **Lore Erriondo** andereak Joaquim Arenas eta Maria Areny jakitunengandik lortu dituen xehetasunak.

«Zer eskumen dauka Kataluniako Hezkuntza Sistemak?» galdetu die Donostiako Irakasleak Bartzelonako kideei. Indarrean dagoen Legea 1983z geroztik ezarria egonik, eskarmentuz mintzo dira bi elkarrizketatuak.

Eta, espero zitekeenez, bekaizti uzten gaituzte erantzunek: Lehen Hezkuntzan ari diren 2.347 eskoletatik, %68 ari da katalanez, gehi beste %14 aldaketan barrena abiatuak!. Kopuru orokorrak ere ez dira makalak: 681.000 ikasle.

Halaz ere, argitzen digute, ikasleok gaztelaniaz ere badakite, baita ongi jakin ere.

Beste xehetasun azpimarragarri bat: irakaskuntza publikoari dagozkion zifra eta kopuru horiek harrigarriak izanik ere, hobeak bide direla irakaskuntza pribatuari dagozkionak: %75 vs. %87 katalanez ikasten ari.

Gauzak ez dira izan han, dena dela, Euskal Herrian uste izaten dugun bezain errazak: frankismoaren bukaerakoan, 1978an preseski, irakasleen arteko %52k (gehienez, beraz) katalanez ez zekiten.

Hizkuntza minorizatuen osasuna «txarra» izaten da, benetan. Eta Kataluniakoa denetan onena izanik ere, oinarritzko datu hori ez da inoiz ahantzi behar: katalana ere, oso hizkuntza azkarra izanagatik, eta 10 bat

milioi hitzun izan arren, hizkuntza «minorizatua» dela.

Bat honen Kudeatzailearen lanak egiten dituen honek, berriz, «Hizkuntza Normalizazioko prozesuetan neurri juridiko hutsek dituzten mugak» izenekoan, beste zenbait herritan gertatutakoak azaltzen dizkigu.

Hasteko, eta Fergusonen iritzi nagusiak abiapuntutzat hartuz, diglosi kasu batzuetan gertatu dena azaltzen digu. Lau kasu paradigmaticoetatik bitan, B hizkera nagusitu da (Grezian eta Ipar Afrikan), eta ez «goiko A» delakoa. Gertakari «bitxi» honek azalpidea merezi duela dirudi.

Antzeko zerbait gertatu da Norvegian, eta «goiko hizkera» bihurtzeko aproposagoa bide zen Aasen-en hizkuntza ez da nagusitu.

Irlandako kasua desberdina izan arren, zerbaitetan bederen aipagarri gertatzen da kasu honetan: Konstituzioaren arabera «A hizkera»tzat hartu zena, gaelikoa, desagertzeko bidean jarri baita Eire Askatuan.

Badugu honetan guztian zer hausnarturik.

Imanol Esnaola irakasle gaztearen artikulu mamitsuak, berriz, kezkaz beterik eta ezkor agian utziko bagaitu ere, zinez merezi du irakurketa pausatua.

Esnaolaren idazlanak gazteen euskararen **korpusa** du aztergai. Arretaz eta xeheki prestatua, badago hor zer pentsaturik.

Esaldi adierazgarri bat hautatzekotan, ondoko hau hartuko genuke guk agian: interferentziak aztertzen direnean, «erdarazkoetan ez dago(ela) euskaratik mailegatutako forma bakar bat ere».

Bestela esanda, erdara da nagusi gazteen hizkeran. Eta «erdararekiko menpekotasun hori, handiagoa da egituretan lexikoan baino».

Adierazgarritasunaren aldetik, hitz batez, euskara «ihartzen» ari da. Eta «giro euskaldunen inpermeabilitatearen mito herritarra» oinarriarik dago jadanik.

Gurasoengandik berezi nahiak, Esnaolak berak egokiro iradokitzen duenez, hein batez azal dezake gazteen hizkeran aurkitzen den «dibergentzia» azkarra. Ez dena, ordea; dibergentzia hori, gehiegitan, erdararekiko morrontza hutsa izaten baita. «Gazte» kutsua, zoritxarrez, **erdal** kutsua baizik ez da izaten.

Bagenekien euskaltzaleok hori guztia, gutxi gora-behera bederen, bai. Baina Esnaolak funtsaturik agertzen den bezala, beldurgarri ere somatzen da. Euskararen kalitatearekiko dagoen axolagabekeria, oso kezagarria da; askotan «ontzat» ematen dugun hizkerak erdal «gramatika» (hitz hau orain Chomsky-ren adieraz hartzen dugularik) baitu sekuentzien oinarritzat. Esnaolak dinoskunez Diman bertan erdara baldin bada hizkeraren sustraia, nekez esan daiteke kezkatzen garen euskaltzaleoz «hiletari nostalgiko hutsalak» garenik.

Berriro ere, hitz batez, gure hizkuntzaren korpusaz seriotan arduratzeko beharreko gogorazten digu.

Odriozola lankideak, azkenik, ohi bezala, bere azkeneko irakurketen berri ematen digu. Eta oraingoan Pierre Bourdieu dakarkigu orrialde hauetara.

«Soziologia kritikoa» deritzonak arreta handiagoa merezi luke gure artean.

Elkarketa linguistikoak, gainerakoak bezala, botere sinbolikoaren mailako elkar trukaketak dira. Hiztun taldeen artean, indar-errelazioak daude funtsean. Alferrik da hau ezkutatzen saiatzea: «hizkuntzen arteko borroka» deitu ohi den hori, hiztun multzoen arteko borroka izaten da, hiztun-komunitateen artekoa.

Hori dela-eta, bi muturretan aurkitzen diren bi desbideraketa nagusiak salatzen ditu Bourdieu: «ekonomizismoa» batetik, eta «kulturalismoa» bestetik. Dena baitago elkar loturik.

Bi desbideraketa horiek Euskal Herrian luzaz oso erroturik egon ondoren, arretaz irakurri behar lirateke Odriozolaren lerroak. Baita, ahalean, Bourdieuren testu mamitsuetara jo.

Honez gain, autoreen lanetara joatea hoberena.